

■ Indaleki Ojanguren

Imanol Laspiur, 1972-IV-9

Indaleki Ojangurenekin zorretan naiz. Orain hiruzpalau urte dela berari buruz idazteko asmotan nintzen. Baina, hona hemen, bera hil ondoren, berandu ez bada ere, benetan saminduriko nere hitzok. Mendia ia zeharo utzita zegoen Indaleki azken urteotan. Hor ikusten genuen kalean, bere makilatxo eskuan zuela, txirri- txirriki biziki. Larogei urte gaineratuak zituenarren, bizitxo zuen bere oinkada. (...) Mutikotxo nintzelarik hauxe esan zidaten behin: Indaleki Ojanguren Euskal-Herriko mendi guztietan

izana zela. Gertakizun hau ikaragarria iruditu zitzaidan eta benetan harritu ninduen. Harrez gero, niretzat, Titan bat zen Ojanguren. (...) Indaleki Ojanguren, Eibartarrantzat "Kajoitxu" eta erdaldun ororentzat "El Fotógrafo Aguila", mundu osoan ezaguna zen eta guztiak benetan maitatua. (...) Indaleki, samatik argazki-tresna edo kamara zintzilika, bere oinpetan Euskal-Herriko mendiak zituela, benetan sinbolu genuen: mendi-sinbolu, mendi-zale-tasun irudipen, garbitasun eta gizon-tasun sinbolu (...) ●


Euskarazko itzez baliatuz ere errez nabarmentzen diranak dira. Pelotari batek, adibidez, jokatzan du egundoko partidua. Artaz ari dira izketan, eta batek ala dio besteari: 'oso ondo egon zan'. 'Estuvo muy bien'

adierazteko erderarekin kutsutu gabeko euskaldun batek amar modutara esango luke: 'latz aritu zan pelotan', 'bikain jokatu zuen', 'berebiziko partidua berea', 'ura zan pelotan egitea', ta abar. Lanean modu artan

aritutako gizona 'ondo egon zala' esatea, itxuski da, noski". Hala ere, ez zen horretan berea bukatzen. "Beste bat asko entzuten dana: 'papel ederra egin zenduen'. Noiztik ikasia ote naiz papelgintzan? 'Hiciste buen papel' adierazteko, 'ederki bete zenduen zeure tokia' esanarekin egiña legoke. Alde ederreko euskal kurpilla!".

Gero, "Aldrebeskeriak" aipatzen zituen. "Oitura aundia da onoko au esateko ere: 'Arratsaldean ikusiko gera'. Euskaldun garbi batek beste modu ontara esango luke: 'Arratsaldean alkar ikusiko degu' edo 'alkar ikusiko degu arratsaldean'. Bietara dago ondo esana". Eta Euskal Herriak bi hizkuntzen eragina jasaten duela gogoratuz: "Mugaz bestaldean ere ba-dute unetik unera idazten duten zati bat: 'erran gabe doa'. Urrutitik ezagutzen da frantzesetik artua dagoela: 'il va sans dire'; frantzes kutsua dario".

Aldrebeskerien zakuan gordeta zituen gehiago. "Pausotik pausora entzuten ditugun baldarkeri batzuk: 'Aitak asko maite dit neri', 'aitak asko maite nau ni' esan



■ Irudian, Lenin.



■ Basarrik idatzitako pilotariaren pasarteak argi uzten du erdarakaden presentzia gure artean.

■ Marxismoa zahartu egin da

Joxe Azurmendi, 1972-IV-9

Zer egin? Ehun urte haundi bait du gainean. Marxismoa atzera geratu den inpresioak zientzia guztietan menderatzen gaitu: Natur-jakintsuek materialismo ortodosoarekin ez dakite zer hasi zientzia zehatzetan. B. Bakaikoak erakutsi digu hau, "Dialektikaren ordez metafisika" izenburuko artikulu batetan (ik. "Anaitasuna", 227). Engels eta Lenin, informazio ona eduki arren, diletanteak ziren natur jakintzetan. Gainera, harrez gerozko aurrerapenak berebizikoak izan dira. Havemann atomo-fisikalari marxistak atzerapen hau aspaldi salatu zuen. Monobiologoak zientismo animista deritza marxismoari (...) ●

bearrean. Nola arritu gaiñera, euskal kanta ezagun batean letra auek agertzen badira: 'Berriz ere maiteko dio gure amak aitari!'. Eta "'Atzo Donosti-n ikusi nizun', 'atzo Donosti-n ikusi zintudan' esan bearrean. 'Nagusiak bialdu dit zuregana', 'nagusiak bialdu nau zuregana', esan bearrean".

Zegoenerako nahikoa errieta egina ziola irakurleari, eta honako agur honekin amaitzen zuen Basarrik bere orduko lana: "Urrengoan gehiago, ontatik bear bezelako milla dago-ta" ●

◆ PILAR IPARRAGIRRE